

FUNTSEZKO JARDUERAK


Gure zerbitzua aurrera ateratzeko eta hau arrakastatsua izateko ezinbestekoa izango da, alde batetik, webgunea behar bezala osatuta eta eguneratua eramatea, eta, bestetik, irabaziak ateratzeko adina bezero izatea. Beraz, bi atal horietan jarriko dugu arreta berezia.

Bost taldekide gara eta normala denez, bakoitzak bere abilezia eta trebetasunak ditu (funtsezko baliabideetan aipatu ditugunak). Horiek aprobetxatuko ditugu gure kabuz ahalik eta zeregin gehien egiteko, baina taldekideren batek larritasunak izanez gero, elkarlanean arituko gara eta denon artean laguntzen saiatuko gara. Hala ere, beste elkarte batzuegandik laguntza jasotzea derrigorrezkoa izango dugu webgunea edo zerbitzua orokorrean ahalik eta osatuen gera dadin.



Annek hainbat urtetan jasotako informatika klaseei esker, mundu horretako formakuntza egokia eta trebetasunak garatu ditu. Bera arduratuko da webgunearen diseinu eta kudeaketaz. Eta informazioen bat modifikatuz edo zuzenduz gero berak egingo du lan hori.

Beste alde batetik, Uxuri literatura munduan oso murgilduta dago, irakurle amorratua eta idazlea ere bada eta. Testuak idazterako orduan erraztasun handia du eta, horregatik, matronak eta sexologoak bermatutako eta aurkitutako informazioa idaztea izango da bere eginkizuna, ondoren Annek webgunean txertatzeko.



Jarraian, taldekide bakoitzak sare sozialetan perfilen bat duen arren, erraztasun handinez darabiltzan pertsona Paula dela argi dago. Hauek gehien kontrolatzen dituen taldekidea da eta eguneratuen dabilena ere bai. Horrelako plataformak

erabiltzea ezinbestekoa denez gure negozioarentzat, Paulak kudeatuko eta osatuko ditu gure perfilak.

Beste alde batetik, hainbat elkarterekin kontaktua mantendu beharra dago (Eusko jaurlaritza, matrona, sexologoa, influencerrak... funtsezko elkarteetan aipatutakoak hain zuzen ere). Horretarako, pertsona bat egon behar da taldeko idazkari gisa eta berak duen komunikatzeko erraztasunean oinarrituta, lan hau Amayak beteko duela pentsatu dugu.



Webgunea originala eta irudimentsua izateko, Iratiren ideiez baliatuko gara. Berak sormen puntua gehituko dio proiektu osoari, seriotasuna neurri batean murrizteko eta horrela beste plataformetatik bereizteko.

Amaitzeko, funtsezko elkarteetan adierazi dugun moduan, ikastolen elkartearekin harremanetan jarrita ikastetxe desberdinetara joango gara hitzaldiak ematera. Gure gaitasunak kontuan izanda, denok hitzaldiak emateko gai izango garela aurreikusten dugu. Hitzaldi bakoitzera bi taldekide joango garela estimatzen da eta bikoteak aldatuz joango garen arren denok beteko dugu kargua.

